

TREBAKUNTZA 2014-02: PASIBOA ETA INPERTSONALA

Gaztelaniaren eraginez, maiz erabiltzen ditugu euskaraz pasiboa zein inpertsonala. Gaztelaniazko idatzietan sarri ikusiko ditugu “*Se comunica, se hace saber, se dispone...*” erako adierazpideak. Baita ere, “*Han sido llevados, ha sido detenido...*” erakoak.

Hala ere, esan beharra dago, euskara berez hizkuntza aktiboa dela; eta esaldiak subjektua behar duela, hots, ekintza nork egin duen adieraztea komeni dela, esaldia ulerterrazagoa izan dadin.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Gaur goizean izan dira onartuak Muxikako Udaleko aurrekontuak.*
2. * *Istiluen ondoren, zortzi gazte atxilotuak izan dira.*
3. * *Zaurituak anbulantzian eramanak izan ziren.*
4. * *Azterketa eguna datorren astean jakinaraziko zaizu.*
5. * *Ibilgailu honen jabeari jakinarazten zaio, hilaren 20rako kendu egin behar duela.*
6. * *Honekin batera bidaltzen zaizu ebazpen hau.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Pasiboa eta inbertsonala ekiditeko, komenigarria da ekintza norik egin duen adieraztea (nik, guk, haiek...), askoz argiago geratuko baita esaldia.

1. Ad. Gaur goizean **onartu dituzte** Muxikako Udaleko aurrekontuak.
2. Ad. Istiluen ondoren, zortzi gazte **atxilotu dituzte**.
3. Ad. Zaurituak **anbulantzian eraman zituzten**.
Zaurituak **anbulantziak eraman zituen**.
4. Ad. Azterketa eguna datorren astean **jakinaraziko dizut /dizugu**.
5. Ad. Ibilgailu honen jabeari **jakinarazten diot /diogu**, hilaren 20rako kendu egin behar duela.
6. Ad. Honekin batera **bidaltzen dizut /dizugu** ebazpen hau.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99